Aipatutako legezko arauak eta oro har aplikatzekoak direnak ikusirik,

Bizkaiko Lurralde ordezkariek, zera

EBATZI DU:

1. Tintorerías y Lavanderías de Bizkaia sektorearentzako Hitzarmen Kolektiboa Lurralde Atal honetako Hitzarmen Kolektiboaren Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Aipatutako Hitzarmen Kolektiboa «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitaratzea.

3. Lurralde Ordezkaritza Honetako Harreman Kolektiboaren Atalean gordailutzea.

4. Jakinarazi ebazpen hau alderdiei, eta jakinarazi, halaber, honen aurka badagoela Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza Zuzendariari gorako errekurtsioa aurkezteko, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluan —115. artikulua ildotik— xedatutakoarekin bat etorritik —lege hori 4/1999 Legeak aldatu zuen, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren organoen eta egitekoen Egitura finkatzen duen otsailaren 12ko 44/2002 Dekretuaren 16.j) artikulua ildotik—.

**BIZKAIKO PROBINTZIAKO HITZARMEN KOLEKTIBOIA
TINDATEGI ETA GARBITEGIEN
TALDEKO ENPRESETARAKO
2002 eta 2003. urtea**

1. artikulua.—Aplikazio-esparrua

Hitzarmen hau Bizkaiko Lurralde Historiko osoan aplikatuko da, eta barne harturiko enpresa edo langile guztiak izango ditu eraginpean, edo jardueratzat ondokoak dituztenak: tindategi eta arropak garbitzeko industriak, garbitegiak eta autozerbitzuak, eskuz eta makinaz plantxatzea eta jendearen enkarguak hartu eta itzultzeko establezimenduak.

2. artikulua.—Indarraldia, iraupena eta berriz aztertzea

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, nahiz eta haren ondorio ekonomikoak 2002ko urtarrileko lehenengora arte atzera ekarriko diren, eta 2003ko abenduaren 31 arteko iraupena izango du. Bi alderdiek salatutzat emango dute Hitzarmen hau 2003ko irailaren 30ean.

3. artikulua.—Berme pertsonala

Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak gutxienekoak direnez, dauden baldintzak errespetatu beharko dira, enpresa-hitzarmen, itun edo interpretaziozkoa soilik ez den erabileraren bidez adostu direla ere, eta betiere langileentzako onuragarriagoak badira.

4. artikulua.—Baldintza onuragarriagoak

Hitzarmen honek gutxieneko baldintzak ezartzen ditu, eta hortaz, baldintza horiek ez diete kalterik eragingo indarrean sartzen diren uneko onuragarriagoei, halakorik balego.

Hitzarmen honetan itundutako baldintzak oro har gutxienekotzat hartzen direnez, baldintza onuragarriagoak itunduta dituzten enpresek haiei eutsiko diete, betiere oro har eta urteko zenbateko Hitzarmen honetan itundutakoaren aldekoak badira.

5. artikulua.—Osotasunerako lotura

Hitzarmen Kolektibo honetan itunduriko baldintzak osotasun organiko eta zatiezinen zati dira, eta urteko zenbaketan batera kontuan hartuko dira aplikazio praktikoari dagokionez.

Laneko administrazio-agintaritza edo administrazio-agintaritza judizialak, bere ahalmenak erabilia, itunen batek indarrean dagoen legeria hausten duela ebazten badu, honela ekingo zaio:

1. -Ebazpenak artikulua osoa hartzen badu eraginpean, artikulua osorik geratuko da eraginik gabe, eta aurreko Hitzarmenaren testua aplikatu ahal izango da haren lekuan, halakorik balego.
2. -Ebazpenak aurreko Hitzarmenean aurrekaririk izan ez duen artikulua bat zati batean hartzen badu eraginpean, artikulua osorik geratuko da eraginik gabe. Aurrekaririk izanez gero, haren testua aplikatuko da behin-behinekoz.
3. -Aurreko idatz-zatietan xedaturikoaren kalterik gabe, Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiak berehala bilduko dira baliogabetzat jotakoa ordezkatzeko duen akordioa lortzeko asmoz. 30 egun igaro ondoren akordio hori lortzen ez bada, alderdiak PRECO IIren prozeduren menpe egongo dira nahitaez, baliogabeturiko artikuluari estaldura efektiboa emateko.

6. artikulua.—Lanaldia

1. -2002. urterako, urteko lan-ordu efektiboak 1.775 izango dira, eta 2003. urterako 1.767.
2. Tindategien Sektorean eskusiboki aplikatu beharrekoa:
 - a) -Langileek libre izango dituzte uztaileko eta abuztuko larunbatak, eta baita ere aurreko ostirala jai deneko larunbatak ere, bi kasuetan egun horiek laneguntzat zenbatu izanaren kalterik gabe.
 - b) a) idatz-zatian aurreikusitakoaren kalterik gabe, ekainetik irailera arte, biak barne, langileentzako lan-ordutegia larunbateko 15:00etan amaituko da, eta Hitzarmena «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitaratzen denetik 2003ko abenduaren 31 arte eragingo ditu horrek ondorioak aplikatzerakoan, ultrajarduerarik gabe.

7. artikulua.— Garraio-plusa

Efektiboki lan egindako egun bakoitzeko joan-etorriko bidaia baten zenbatekoa ordainduko da, lantokitik b i k i l o m e t r o baino gehiagora bizi diren langileek erabiltzen duten garraio publikoari dagokiona.

Lan-arrazoi bat dela-eta langileek egin beharreko joan-etorriak denbora efektibotzat zenbatuko dira, eta eragiten dituzten gastuak enpresaren kontura izango dira.

8. artikulua.— Oporrak

Garbitegien Sektorerako oporrek etenik gabeko 27 egunen iraupena izango dute, eta horietatik kanpo dago garai bateko zaindariaren jaia.

Tindategien Sektorerako, oporrek 27 lanegunen iraupena izango dute garai bateko zaindariaren jaia barne hartuta, etenik gabeko 28 egun natural izango dituzte eta gainerakoak etenekin enpresak hori erabakitzen duenean, ostirala jaieguna izanez gero egun horietako bat larunbateko oporrerako gorde behar izanaren kalterik gabe.

Oporrak hasteko eguna astelehena izango da ekainean, uztailan, abuztuan eta irailean.

Oporrak txandaka hartzen direnean, txandakakoak beharko dute izan, eta baliogabetu egingo da lehen o p o r r a k h a r t z e k o e g o n zitekeen edozein lehentasun-eskubide.

Oporrak soldata errearen bidez ordainduko dira, lanean arituko balira bezala, eta oporrak hartu aurretik o r d a i n d u b e h a r k o dira.

9. artikulua.— Lan-egutegia

1. Enpresek urte bakoitzeko abenduan hurrengo urterako lan-egutegia egin beharko dute, langileen ordezkaritzarekin batera. Egutegi horrek lanegunak eta jaiegunak bilduko ditu, eta baita ere itundutako zubiak eta langileek oporrak hartzeko denboraldia ere.

Alderdien arteko desadostasuna gertatzen bada, lan-arloko agintaritza eskudunak nahitaez bete beharreko irizpena emango du.

10. artikulua.— Ordainduriko lizentziak

Hitzarmen honen eraginpeko langileek ordainduriko lizentziak eskatzeko eskubidea izango dute ondoko kasuetan:

- a) Ezkontidea hiltzen bada: 5 egun natural.
- b) -Gurasoak, seme-alabak, anai-arreba odolokide edo politikokoak, bilobak eta aitona-amonak: 3 egun natural.
- c) -Gurasoen, seme-alaben, anai-arreba odolokide edo politikoen eta ezkontidearen gaixotasun larria edo hura ospitalean sartzea: 2 egun natural.
- d) Emazteak erditzea: 3 egun natural.
-Dagozkion lizentziak izateko langileak bere etxetik 250 km-tik gorako bidaia egin behar badu, lizentziari beste bi egun natural gehituko zaizkio.
- e) -Seme-alaba edo anai-arreba odolokide edo politikoen ezkontza dela-eta: egun natural bat.
- f) -Langilea ezkontzen bada: 20 egun natural, betiere oporraldia larunbata ez den egunez hasiz gero.

11. artikulua.— Antzinasuna

Honela erregulatuko da antzinasun-plusa:

- a) Amaituriko bosturtekoen arabera ordainduko da.
- b) -Langilearen bosturtekoaren zenbatekoa %7 izango da hari dagokion kategoria profesionalaren Hitzarmenaren oinarritzko soldataren gain.
- c) -Langileak antzinasun-plusaren bidez metatuta dituen bosturteko guztiak jasoko ditu, hark duen azken laneko kategoriaren arabera.

Ondoko arauak erregulatuko dute langileen antzinasunaren zenbaketa:

1. -Hitzarmen honen indarralditik aurrera lanean hasten diren langileentzako, antzinasuna lanean hasten diren egunetik zenbatuko da.

2. -Ikaskuntza eta prestakuntzako kontratuaren markoan -zerbitzuak ematea antzintasun-ondorioetarako zenbatuko da, eta 1980 apirilaz geroztik egindako lana barne hartuko da zenbaketa horretarako.

3. -Gainerako langileentzako antzintasuna lanera sartzen diren egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

12. artikulua.— Soldata-ordainsaria

Hitzarmen Kolektibo honen iraunaldi-urteei dagozkien soldata-taulek ondoko igoerak izango dituzte aurretik dituzten urte bakoitzean indarrean zegoen taularekiko:

- 2002. urtea: KPI 2001 EAE + 1: %4,4.
- 2003. urtea: 2002. urteko EAEko KPI + 1: %4,9.

13. artikulua.— Ez-aplikatzea

Hitzarmen honetan ezarritako soldata-erregimena ez da behartuta edo nahitaez aplikatu behar aplikazioaren ondorioz euren egoera ekonomikoa kalteak izan ditzaketen enpresetarako. Ondorio horietarako, ondokoak hartuko dira arrazoi justifikatuztat, besteak beste:

— -Defizit edo galerako egoerak, objektiboki eta modu frogagarrian egiaztatuak kontabilitateko azken bi ekitalditan. Urte horretako aurreikuspenak ere kontuan hartuko dira.

— -Sozietate Anonimoen Legeko 163 eta 260. artikuluetan bilduriko egoeretan barne harturiko sozietateak (kapitala murriztea eta sozietatea banatzea).

— -Hartzekodun-lehiaketa, porrot edo ordainketa-etendurako egoeran dauden enpresak.

— -Ondoko zirkunstantziak ere baloratuko dira: produkzio-maila eskasa, salmentak, bezeroak nabarmen galtzea, likidezirik eza eta enpresaren egonkortasunean eragina duten kaudimengabeko bezeroen bolumena.

Hitzarmenaren soldata-erregimena aplikatu nahi ez duten enpresek idatziz jakinarazi beharko diote Hitzarmenaren Batzorde Mistoari, langileen ordezkariari edo, hala badagokio, langileei, Hitzarmena «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitaratu eta 15 eguneko epean, eta langileen ordezkariari edo langileei zuzenduriko idazkiarekin batera beharrezkoa den dokumentazioa eman beharko da (azalpen-memoria, balantzeak, emaitzen kontuak, edo, hala badagokio, kontuen auditore edo zentsoreen txostena edo bestelako dokumentuak), soldata-erregimen berezia justifikatuz.

Behin aurreko jakinarazpena eginda, 30 eguneko epean enpresan ez-aplikatzeari buruzko akordioarik ez balego, espedientea Hitzarmenaren Batzorde Mistora eraman beharko da; 30 eguneko epean hartu beharko du erabakia eta loteslea izango da.

Enpresa eta langileen ordezkarien arteko, edo horiek ezean langileen beraien arteko, akordioek eta Batzorde Mistoaren akordioek alderdi bakoitzaren gehiengoa eskatuko dute baliozkoak izateko.

Batzorde Mistoan ere gaiari buruzko akordioarik lortzen ez bada, PRECO II-ren prozedurak aplikatuko zaizkio nahitaez espedienteari desadostasunak efektiboki konpon ditzan, eta bertan alderdi interesatu bezala jardungo dute Batzorde paritariora osatzen duten ordezkariak.

Ez-aplikatzeak, onartzen bada, urte beteko iraunaldia izango du.

Enpresaren batek Hitzarmen honen ez-aplikatzea luzaroago mantendu nahi badu, eskaera berri bat aurkeztu beharko du artikulua honetan aurreikusitako moduan eta prozedurarekin.

Ez-aplikatzearen aldia igaro eta haren luzapenik eskatu ez bada edo luzapena ezeztatu badute, automatikoki aplikatuko dira berriro Hitzarmenean aurreikusitako baldintzak.

Langileen legezko ordezkariak edo, hala badagokio, langileak beraiek edo Batzorde Mistoa behartuta daude jasotako informazioa eta aurreko paragrafoetan ezarritakoaren ondorioz eskuraturiko datuak erreserbarik handienarekin tratatu eta mantentzera, betiere dagokion sekretu profesionalarekin.

14. artikulua.— Gutxieneko bermea

Soldata-taulak alde batera utzita, Hitzarmen Kolektibo honen iraunaldi-urte bakoitzari dagokionez, aurreko urte bakoitzean urte horietarako finkaturiko gutxienekoak baino handiagoak diren ordainsariak dituzten langileei Hitzarmen honen iraunaldi-urte bakoitzean dauden 14 ordainketa bakoitzeko 2002 eta 2003ko hitzarmenaren soldata-taulek hurrenez hurren aurreko urteetako taulekiko dituzten alde ekonomikoak bermatzen zaizkie, gutxieneko bermearen zutabearen arabera, Hitzarmenaren 1. eranskinean bildutakoa.

15. artikulua.—*Aparteko orduak*

Tindategien Taldean aparteko ordu bakoitza ordu arrunt bakoitzaren soldataren gaineko %110eko igoerarekin ordainduko da, igandez edo jaiegunez lan egindakoak izan ezik, horiek %150eko igoerarekin ordainduko baitira eta Legeak ezarritako gehienezko ordu-kopurua kontuan hartuta. Garbitegien Talderako ere aurrekoa egongo da indarrean, aparteko orduaren balioa izan ezik, %75eko igoera izango baitu.

Bi azpisektoreetan aparteko orduak atsedenaldi-orduena truke konpentsatu ahal izango dira, aurreko paragrafoari dagozkion portzentajeak handituz.

Langabezia-egoera larria denez eta enplegua sortzeko mesedetan, bi alderdiek aparteko orduak ezinbesteko gutxienez murriztea egokia dela erabaki dute, ondoko irizpideei jarraituz:

1. Ohiko aparteko orduak: kentzea.
2. -Istripuak konpontzeko premiaren edo bestelako kontu aparteko edo urgenteen ondoriozko aparteko orduak, eta baita lehengaiak galtzeko arrisku-kasuan ere: egitea.
3. -Puntako aldiaren edo aldietan beharrezkoak diren aparteko orduak: egitea.

Ondokoak betetzeko beharrezkoak direnak hartuko dira aparteko ordutzat: puntako produkzio-aldiak, aurreikusitako gabeko aldiak, aurreikusitako ez-bertaratzeak, txanda-aldaketak, mantentzea, betiere indarrean dauden kontratazio-modalitateen erabilerak ordezkatu ezin baditu.

16. artikulua.—*Azterketa medikoa*

Enpresak urtean bitan aztertuko ditu bere langile guztiak, horien premiez arduratzen diren Lan Mutualitateen bidez; azterketa horrek ondokoak bilduko ditu gutxienez: odol eta gerneru analisia, X izpiak, birrikak eta bihotza, eta enpresak interesatuei txosten medikoa emateko obligazioa du.

Arestian azaldutakoa betetzen ez bada, enpresak langile bakoitzari azterketa mediko bat egiteko beharrezkoa den denbora eman beharko dio, eta gastuak enpresaren kontura izango dira.

17. artikulua.—*Laneko arropa*

Enpresak langile bakoitzari urtean dagozkion bi laneko jantzi egoki eman beharko dizkio.

Langileak lanpostu hezeetan lan egiten badu, enpresak babesteko jantziak eta oinetakoak eman beharko dizkio.

18. artikulua.—*Prestakuntza-kontratuak*

Hitzarmenaren iraunaldian, kontratazio-modalitate hauek lan-kontratuen beraien iraunaldiaren arabera eraunduko dira, legezko erregulazio-arauak kontuan izanda.

19. artikulua.—*Sailkapen profesionala*

Gai honetan 1972-12-1eko Aginduan aurreikusitakoa aplikatuko da (haren testua Hitzarmen honetan barne hartuta dago), eta iraunaldia eta ondorioak 2003-12-31 arte izango ditu soilik, eta hortaz, egun horretatik aurrera ez da aplikatuko.

20. artikulua.—*Probaldia*

Langileak lanean hasten direnean probaldian daudela hartuko da kontuan, eta denboraldi horren iraupena aldatu egingo da bete beharreko lanpostuaren arabera eta ezein kasutan ezin izango du ondoko eskalan finkaturiko denbora gainditu:

- Tituludunak: 6 hilabete.
- -Gainerako kategoria profesionalak: 3 hilabete, ez-kualifikatuak izan ezik, horientzako hilabete 1 baita.

Horrela idatzita badago soilik hartuko da kontuan langilea probaldian dagoela. Probaldi horretan, enpresak eta langileak libreki amaitu ahal izango dute kontratua, aurreabisuko eperik gabe eta inolako kalte-ordaineko eskubiderik gabe.

21. artikulua.—*Soldadutza*

Soldadutza edo ordezkotza gizarte-zerbitzua betetzen ari den langile orori aparteko haborokin guztiak ordainduko zaizkio.

Langileak zerbitzu horiek irauten duten bitartean lanpostua errespetatu diezaioten eskubidea du, eta hartara itzuli behar du lizentziatzen den egunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean.

22. Artikuluak—Aparteko haborokinak

Hitzarmen honen eraginpeko langileek uztailaren 15ean eta abenduaren 15ean aparteko haborokina jasoko dute, soldataren hilabeteko baten baliokide.

23. artikulua.—Goi-mailako lanak

Indarrean dagoen legerian xedatutakoa hartuko da kontuan.

24. artikulua.—Eskubide zehatzak

Amatasunarekin zerikusia duten arazoak ez dira galdutako lan-ordu bezala zenbatuko.

Lanean berriz automatikoki hastea amatasunagatiko eszedentziaren ondoren.

Enpresaren kontrol medikoa emakumearen arazo berezietara zabalduko da.

Haurdun dagoen langileari lanpostua aldatuko zaio normalean duena harentzat kaltegarria izan baliteke, betiere enpresak halakorik egin badezake, Laneko Arriskuen Prebentzio Legearen 26. artikuluan aurreikusitakoaren kalterik gabe.

25. artikulua.—Jarduera toxikoak, nekagarriak eta arriskutsuak

Une bakoitzean indarrean dagoen legerian xedaturikoa hartuko da kontuan.

26. artikulua.—Diziplina-erregimena

Langileek enpresen Zuzendaritzaren zigorrak izan ditzakete, ondoko artikuluetan ezartzen dien hutsegite eta zigorren graduazioaren arabera.

Hutsegiteen graduazioa

Langile batek egindako hutsegite oro arina, larria edo oso larria izango da, bere garrantziaren, nondik norakoaren eta asmoaren arabera.

1. Hutsegite arinak:

Ondokoak hartuko dira hutsegite arintzat:

1. -Puntualtasunari dagokionez bat eta hiru hutsegite bitartean izatea lanera bertaratzerakoan, hilabeteko denboraldian, 30 minutu arteko atzerapenarekin, atzerapen horiek enpresaren produkzio-prozesuari kalte larriak eragiten ez badizkote, kasu horretan hutsegite larria izango baita.
 2. -Dagokion garaian baja ez aurkeztea justifikatutako arrazoitategatik lanera ez bertaratzean, baja aurkeztea ezinezkoa izan dela justifikatzen denean izan ezik.
 3. -Lana uztea funtsezko arrazoirik gabe 30 minutu arteko denboraz. Lana uztearen ondorioz enpresan kalterik sortuz gero edota langileren bati istripuren bat gertatuz gero, hutsegite hau larritzat edo oso larritzat jo ahal izango da, kasuen arabera.
 4. Materiala zaintzerakoan arreta nahikoa ez jartzea.
 5. Justifikaturiko arrazoirik gabe lanera egun batez ez joatea.
 6. Jendea egoki eta behar den moduan ez artatzea.
 7. -Enpresari bizileku edo egoitza aldaketan berri ez ematea, edo Gizarte Segurtasunari buruz oker emandako datuen aldaketena. Irregularitasun horiek nahita edo maleziaz egiten badira, hutsegite larria izango dira, eta enpresari kalterik eragiten badiote, oso larriak.
8. Enpresaren egoitzetan langileen artean eztabaidak izatea.
9. -Edozein lanetan izandako deskuiduak, akatsak edo hura burutzeko atzerapena, betiere aginduriko zerbitzuan asaldura handia eragiten ez badute.
10. Jendearentzako egoitzetan erretzea.

2. Hutsegite larriak:

Ondokoak hartzen dira hutsegite larritzat:

1. -Hogeita hamar egunen barruan, hirutan baino gehiagotan lanera garaiz ez bertaratzea, justifikatu gabe.

2. -Hogeita hamar egunen barruan, egun bat baino gehiagotan lanera ez bertaratzea, halakorik justifikatzeko arrazoirik gabe.

3. -Garbi eta txukun ez bertaratzea, horrek eraginik izaten badu produkzio-prozesuan eta zerbitzuaren aurkezpenean, betiere aldeztatik enpresak langileari idatzitako oharra eman badio.

4 . -Lanaldian edozein jokorekin denbora-pasan aritzea.

5. -Laneko aginduak eta argibideak ez betetzea, segurtasun eta higiene araei buruzkoak barne, eta baita ere laneko zuhurtziarik eza eta utzikeria; dena den, horien ondorioz enpresak kalte larriak izaten baditu, instalazio, makinek eta oro har enpresako ondasunek matxurak izaten badituzte edo pertsonentzako istripu-arriskua eragiten badute, hutsegite larritzat hartuko dira.

6. -Lanean utzikieriaz aritzea, jokabide horrekin asaldura handia eragiten bada edo zerbitzuari kalte
e g i t e n b a z a i o .

7. -Lanean duen errendimendu normala edo itundutakoa nahita eta behin eta berriz gutxitzea, legezko aurreikuspenen kalterik gabe.

8. -Baimenik gabe, lanaldian lan partikularrak egitea eta enpresako tresnak norbere kontuetarako erabiltzea.
9. -Zerbitzu-egintzatik kanpo mozkor edo drogen eraginpean egotea, betiere uniforme delata-eta enpresa identifika badaiteke, bai eta langilea egoera horretan lanera bertaratzea ere.

10. -Lanpostua 30 minututik gora uztea, arrazoi justifikaturik gabe; uztearen ondorioz enpresari kalte larriak eragiten badizkio, hutsegite oso larria izango da.

11. -Artikulu honetako 1.1, 1.3 y 1.7 idatz-zatien ondoriozkoak.

12. -Beste langile bat ez bertaratu izanaren plantak egitea, norbait enpresan dagoela egiaztatzeko edozein ohiko bitartekoz baliatuz.

13. Jendea aurrean dagoela langileen arteko eztabaidak.

14. -Korrespondentziaren edo enpresarentzako soilik diren dokumentuen sekretua haustea edo isilpean gorde beharreko datuak ezagutaraztea, Langileen Estatutuaren 64. artikuluko aurreikuspenen kalterik gabe.
15. -Hiruhileko batean, hutsegite arinak behin baino gehiagotan egitea, mota desberdinekoa izan arren, eta tartean idatzizko komunikatua izanik.

3. *Hutsegite oso larriak:*

Ondokoak hartzen dira hutsegite oso larritzat:

1. Bost minututik gorako justifikatu gabeko 10 huts baino gehiago egitea puntualtasunari dagokionez sei hilabetean, edo hogeit huts urtebetean.

2. Agindutako egitekoetan iruzur egitea, ordainsariak onartzea, leialtasun ezaz jokatzea edo konfiantzaz aprobetxatzea eta enpresari, lankideei edo edozein pertsonari ostea, indarkeriaz nahiz gabe, enpresaren egoitzetan edota edozein lekutan, lanorduetan bada. Merkataritza-negoziaketak egitea norbere kontura edo beste pertsona baten kontura enpresaren baimen argi eta garbia izan gabe.

3. Faltsukeria istripuaren zirkunstantzietan, gaixotasunaren edo istripuaren plantak egitea eta haren sendatzea maleziaz edo plantak eginez luzatzea.

4. Enpresako lehengaiak, lan-tresnak, lanabesak, makinak, aparatuak, instalazioak, eraikinak, tresnak eta agiriak galtzea, puskatzea, txikitzea edo hondatzea.

5. Korrespondenziaren edo enpresarentzako soilik diren dokumentuen sekretua haustea edo isilpean gorde beharreko datuak ezagutaraztea, enpresari kalte larriak sortzen badizkio edo sor badiezazkio, Langileen Estatutuaren 64. artikuluko aurreikuspenen kalterik gabe.

6. Nagusiak edo euren familiartekoak, lankideak, menpekoak eta bezeroak oro har hitzez edo egintzez, gaizki tratatzea eta errespeturik edo begirunerik gabe jokatzea.

7. Lanaldian eta bere lanpostuan sarritan mozkor eta drogen eraginpean egotea. Arau-hauste honi dagokion zigorra ez da gauzatuko langilea errehabilitazioan hasten bada, eta horretarako eszedentzia bat izango du eta lanpostua urtebeterako gordeko zaio; bi urtera arte zabal daiteke sendatzeko beharrezkoa izanez gero, gai horretan eskudun den erakundeak hori egiaztatzen badu.

8. Produktu sukoiak dauden egoitzetan erre edo sua piztea, bertan halakorik egitea debekatzen duen errotulurik badago.

9. Lanean duen errendimendu normala edo itundutakoa behin eta berriz eta nahita gutxitzea, legezko aurreikuspenen kalterik gabe.

10. Kontratuaren fede ona urratzea, eta konfiantza-abusua agindutako eginkizunei dagokienez.

11. Hilabete batean lanera hiru lanegun baino gehiagotan ez bertaratzea, justifikaziorik gabe.

12. Artikulu honetako 1.3, 1.7, 2.5 eta 2.10 idatz-zatien ondoriozkoak.

13. Hutsegite larri edo oso larriren bat berriro egin edo errepikatzea, hura dela-eta langilea lanetik botatzen ez badute, hutsegiteak desberdinak izanda ere, betiere aurrekoa egin eta hurrenez hurren sei eta hamabi hilabeteko epean egiten badira, betiere aurreko zigorra tinkoa bada.
14. Sexu-jazarpena, eta halakotzat sexu-alorreko hitzezko edo egitezko irainen bidez lan-esparruan erakutsitako jokabidea hartzen da, langileen intimitatearen eta duintasunaren errespetua larriki erasotzen duena.

Zigor-erregimena

Enpresaren Zuzendaritzak du zigorrak ezartzeko ahalmena Hitzarmen honetan erabakitako baldintzetan.

Ezarritako zigorrak direla-eta, espediente pertsonaletan jaso daitezkeen kontrako oharra baliogabetuta geratuko dira hiru, sei eta hamabi hilabeteko epeak betetzean, hutsegite larria edo oso larria izatearen arabera.

Gehienezko zigorrak

Kasu bakoitzean jarri ahal izango diren zigorrak ondokoak izango dira, eginiko hutsegitearen larritasuna kontuan hartuta:

1. *-Hutsegite arinengatik:* Idatzizko kargu hartzea, enplegua eta soldata etetea bi egun arte.
2. *-Hutsegite larriengatik:* Enplegua eta soldata etetea hiru eta hamabost egun bitartean.
3. *-Hutsegite oso larriengatik:* enplegua eta soldata hamasei eta hirurogei egun bitartean etetetik lan-kontratua deuseztatzeraino.

Preskripzioa

Kasu guztietan aplikatu daitezkeen indarrean dagoen araudiaren arabera, Enpresaren zuzendaritzak zigortzeko duen ahalmena hamar egunetan preskribituko du hutsegite arinetarako, hogeita egunetan hutsegite larrietarako eta hirurogei egunetan oso larrietarako, Zuzendaritzak hutsegitea egin zela jakin zuen egunetik kontatzen hasita, eta edozein kasutan ere, hura egin eta sei hilabetera.

Legedi orokorraren izapideei jarraituko zaie zigorrak ezartzeko.

27. artikulua.—Berme sindikalak

Langileek enpresan parte hartzeko eskubidea dute ordezkari-organoen, Langileen Ordezkarien eta Enpresa Batzordearen bidez, eta horien eginkizun, eskubide, ahalmen eta bermeak Langileen Estatutuan zehaztuta daude.

Aurrekoaren kalterik gabe, lantoki bakoitzeko Batzordeko kide edo Langileen ordezkari bakoitzarengatik ordainduriko hilabeteko orduen kreditua honela zabalduko da, bere ordezkari-eginkizunak bete dituzan:

Bost ordu gehiago Langileen Estatutuko 68. artikuluko c) paragrafoak hilabeteko 15, 20 eta 30 ordu ematen dituzten kasuetan.

28. artikulua.—Batzorde Mistoak

Sindikatu bakoitzeko ordezkari batek osatuko du, eta enpresa-ordezkarien kopuru berak.

Batzorde honen akordioek ordezkari bakoitzaren gehiengo sinplea beharko dute baliozkoak izateko.

Batzorde honek ondoko eginkizunak izango ditu bere kargura:

- a) -Hitzarmen hau oro har interpretatzea; horretan interesatuta dauden guztiek eskatu ahal izango dute.
 - b) -Hitzarmen honen aplikazioaren ondoriozko gai buruz erabakitzea.
 - c) -Hitzarturikoa betetzen dela zaintzea, Lan Ikuskaritzari gai horri buruz dagokion eskumenaren kalterik gabe.
 - d) -Hitzarturikoa eraginkortasun handiagoz betetzeko mesedegarri den beste edozein atribuzio.
- Batzorde Mistoak helbidea Bilbon izango du, Kale Nagusia 50-5.º (Bizkaia-Cebek Enpresa Elkarteak).

Batzorde Mistoak esku hartzea eskatzen denean, hamar eguneko epean deitu eta eratu da, eta hogeita hamar eguneko epean planteaturiko gaia erabakiko du.

29. artikulua.—*Erretiro berezia 64 urterekin*

Sektoreko langile batek erretiroa 64 urterekin hartu nahi badu, 1.194/1985 Errege Dekretuak, uztailearen 17koa («EAO» 1985-7-20), aurreikusitakoaren babespean, bere asmoa jakinaraziko dio enpresari; proposamena ez da loteslea izango eta ez du ezertara behartzen, eta dena den, enpresak gehienez 30 egun naturaleko epean erabaki beharko du.

30. artikulua.—*Txanda-kontratuak*

Bi alderdiek txanda-kontratuaren ezarpena bultzatzeko konpromisoa hartzen dute.
Batzorde bat eratu da talde profesionalak ezartzeko kontratu honen ondorioetarako.

31. artikulua.—*Istripu-aseguru kolektiboa*

Hitzarmen hau aplikatzen duten enpresa guztiek euren langileentzako heriotza eta erabateko ezintasunagatiko istripu-aseguru bat itundu beharko dute, 12.000 euro-koa.

Klausula honen ondorioak Hitzarmena argitaratu eta hilabetera sartuko dira indarrean.

32. artikulua.—*Izatezko bikoteak*

Izatezko bikoteen erregimena Legez arautzen den artean, elkartze horiek ezkontzat hartuko dira eta tratamendu hori izango dute 10. artikulua ondu ondorioetarako, bizikidetasun-ziurtagiria aurkeztuta. Izatezko bikoteek hartarako eskubidea duten ezkontza-lizentzia ezin izango da errepikatu hiru urteko epean. Behin dagokion Legeak elkartze hauek arautu ondoren, idatz-zati honek ez du eraginik izango, eta gai horri buruz legeriak dioena aplikatuko da.

33. artikulua.—*Edoskitze-baimena*

Langileak zehaztuko du edoskitze-baimena izateko hartuko duen ordutegia, lanaldi arruntaren barruan.

SOLDATA-TAULA, 2002-1-1ETIK 2002-12-31RA ARTE

(2002)

Kategoriak	Tindategiak		Garbitegiak	
	Hilabete.	Gutxieneko bermea	Hilabete.	Gutxieneko bermea
<i>Lantegiko langileak</i>				
1. mailako ofi.	665,24	28,03	691,02	29,13
2. mailako ofi.	647,27	27,28	672,36	28,34
3. mailako ofi.	639,63	26,96	664,37	28
Especialista	631,92	26,63	656,28	27,66
<i>Dendako Langileak</i>				
Ofiziala	631,92	26,63	656,28	27,66
Laguntzailea	591,42	24,92	629,54	26,53
<i>Zerbitzu languntzaileak</i>				
Txoferra	665,24	28,03	691,02	29,13
Banaketa-mutilla	606,29	25,55	629,66	26,54
Zaintzaileak	631,92	26,63	656,28	27,66
Garbi Ema.-Gizon/orduak	4,24	0,18	4,41	0,18
Atezaina	631,92	26,63	656,28	27,66
<i>Administrariak</i>				
1. mailako burua	824,22	34,74	856,52	36,10
2. mailako burua	775,49	32,69	805,79	33,96
1. mailako ofiziala	734,46	30,95	763,10	32,16
2. mailako ofiziala	683,21	28,80	709,74	29,96
Adminis. Laguntzailea	644,73	27,18	685,01	28,87

Teknikariak

Zuzendari Teknikoa	1,042,02	43,92	1,083,34	45,66	
Arduradun Orokorrak	824,21		34,73	856,52	36,10
Atal Arduraduna	744,71		31,39	773,77	32,61

SOLDATA-TAULA, 2003-1-1ETIK 2003-12-31RA ARTE

(2003)

Kategoriak	Tindategiak		Garbitegiak	
	Hilabete.	Gutxieneko bermea	Hilabete.	Gutxieneko bermea
<i>Lantegiko langileak</i>				
1. mailako ofi.	697,83	32,59	724,87	33,85
2. mailako ofi.	678,98	31,71	705,30	32,94
3. mailako ofi.	670,97	31,34	696,92	32,55
Espezialista	662,88	30,96	688,43	32,15
<i>Dendako langileak</i>				
Ofiziala	662,88	30,96	688,43	32,15
Laguntzailea	620,39	28,97	660,38	30,84
<i>Zerbitzu laguntzaileak</i>				
Txoferra	697,83	32,59	724,87	33,85
Banaketa-mutila	635,99	29,7	660,51	30,85
Zaintzailea	662,88	30,96	688,43	32,15
Garbiketa Ema.-Gizon/ordu	4,44	0,2	4,62	0,21
Atezaina	662,88	30,96	688,43	32,15
<i>Administrariak</i>				
1. mailako burua	864,60	40,38	898,48	41,96
2. mailako burua	813,48	37,99	845,27	39,48
1. mailako ofiziala	770,44	35,98	800,49	37,39
2. mailako ofiziala	716,68	33,47	744,51	34,77
Adminis. Laguntzailea	676,32	31,59	718,57	33,56
<i>Teknikariak</i>				
Zuzendari Teknikoa	1,093,07	51,05	1.136,42	53,08
Arduradun Orokorrak	961,29	46,38	899,68	47,99
Atal Arduraduna	861,20	36,49	899,68	47,99